

Maitasunaren errautsak

Patxi Aizpurua Garaialde

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1993



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Maitasunaren errautsak

Patxi Aizpurua Garaialde

Julene Azpeitia 6. ipuin lehiaketa

1993

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Patxi Aizpurua Garaialde (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

"I verra la morte e avrá tuoi occhi."

(Cesare Pavese)

Ez du gauak, esan ohi den bezala, guztia estaltzen. Izara finez estalirik eskaintzen du bere babesgunea, edozein argi izpi edo zaratak, zarrata batean, laurdendu lezakeena. Gauerdi ingurua izango zen tiro hots batek esnatu ninduenean. Lehenengo unean amesgaizto baten juzkua egin nuen; izan ere garai haietan heriotzaren itzala neurekin neraman, buhameak merkantzien morrala bizkarrean daraman bezala. Baina etxekoen jaikitzeak eta kalean segituan entzun nituen mintzoek, besterik zela ohartarazi ninduten.

Ondoko etxean zegoen atera nintzenerako, jendartean argiak dizdizka, anbulantzia. Poliziak ere etorriak ziren eta jendea etxe haren ondotik urruntzen ari ziren. Bildu zen jendearen arteko komentarioak era guztietakoak ziren:

—Bere burua hil omen dik —zioen batek.

—Bere burua hil? Ez dik hor ondoan pajaro txarra laguntzeko ere —erantzun zion ondokoak.

Deliberaziotarako astirik utzi gabe, anbulantzia, etorri bezala, bidean jarri zen argiak eta sirena martxan zituela. Poliziak gizon garai beltzaran bat zeraman besotik hartuta. Kotxean sartzerakoan ohartu nintzen, aurpegi hura ikusi ondoren, bera zela, Rafael, bere adiskide mina.

Argi eta sirena zaratek etxera zihoan jende arteko argudioei utzi zieten bidea. Gau goibel hartako izara, berriro ere, lehen zeukan osotasunez jabetu zen galdutako babes iluna bezain isila eskainiaz.

Etxekoak lo zeudelarik, ezin nuen inolaz burutik aldendu herriko juezak, gorpua jasotzeko baimena eman aurretik, medikuarekin batera, burualdea estaltzen zion maindirea baztertu eta zeharka begiztatu nuen aurpegi odoltsu hura. Oso bestelakoa zen urte bete lehenago, lehenengo aldiz, ikusi nuenekoa.

Udazkeneko egun eguzkitsu bat zen. Eskolako ordu luzeez gogaiturik, ondoko etxe zahar hartara joan ohi nintzen bizikleta harturik. Lau horma baino ez zituen kasik. Teilatua lau uretakoa, erdi eroria, eta teila zahar haiek hormatxorien habiei ematen zien babesa. Goldelur inguruko zelai bat zeukan behealdean, muxika, sagar eta melokotoiondoz hornitua. Etxearen bueltan, belodromotzat hartzen nuen zementuzko bidea.

Etxe aurreko intxaurrondoaren itzalpean nengoen bera agertu zenean. Auto ttiki gorri batean ailegatu zen. Berrogei urte inguru jo nizkion, moxtaka aukeran, aurpegi borobila, begi urdinak eta ile hori distiratsua.

—Arratsaldeon! —esan zidan atzerritar azentu puntu batekin.

Nire *baita zuri* ere atzean geratzen zitzaiolarik, etxe zaharrerantz zuzendu zituen pausoak. Poltsikotik koaderno ttiki bat atereaz, kaminoa bera bezala jarraitu zuen etxeari buelta emanez. Noizbehinka gelditu, lapitza hozkatu eta tarteka zerbait idatziz, pausu bat pausu bi, segitu egiten zuen.

Nigana etorri zenerako bi edo hiru orrialde beterik zeuzkan. Nire aurpegia eta lepoaldea bere koaderno ttikiaren azala baino gorriago jarri ziren.

—Denbora batean ez duzu entrenatzeko lekurik izango. Sentitzen dut. Hala ere, gero nahi duzunean hortxe izango duzu. Hemendik aurrera bizilagunak izango gara. Elsa naiz.

—Martin —esan nion ahots lehor lakarrez luzatzen zidan bostekoa neurearekin bat eginez.

Emakume argia zirudien, irribarretsua. Hamalau urtek ematen duten zozotasuna ezin ezkutatuz, berak hasitako argudioa segitu nuen.

—Zuk erosi duzu orduan etxe zaharra...

—Bai Martin, nik erosi dut eta obran hasi nahi dut segituan. Datorren udaberri alderako bertan bizitzen jarri nahi nuke.

Amak askotan esan ohi zidan zomorro samarra nintzela, ez bera bezala kasugilea eta, hori, aitaren aldekoa nuela. Nire lekuan, auzoko edozein neska-mutilek hainbat galdera egingo zizkion: nongoa zen, ezkontuta zegoen, hala bazen umerik bazeukan... Nik baino fundamentu hobea eramango zuen etxera. Ni, ordea, han nengoen bere aurrean, mutu, noiz alde egingo zuen zain.

—Beno Martin, banihoa. Hemendik aurrera maizago egongo gara— esan zidan azkenean nire lasaitasunerako—. Zaindu ondo etxea!

Bere blusa txuri eta galtza bakeroekin, pausu biziz egin zituen autoa bitarteko metroak. Eskua jasorik paretik pasa zelarik, begiradarekin jarraitu nuen kotxe gorri ttiki hura harik eta lehenengo bihurgunean galdu zen arte.

Ezinegona nahiko baretu bazen ere, emakume haren irudia neukan burmuinetan itsatsia. Haren adats horiaren dizdizekoak, haren begi urdin handi sarkorrak, haren irribarre gozoa, haren...

Ondorengo hilabeteetan izan zen mugimendurik etxe zahar haren ingurumarietan. Lau igeltsero aritu ziren eguna joan, eguna etorri, etxe zahar erorixea zutik jarri eta atontzen. Alemana omen zenaren etxetxoa inguruko bizilagun guzien ahotan zebilen eta, horrekin batera, emakume haren nondik norakoaren aztarnak saltsatzen. Batzuk alarguna zela zioten. Senarra zerbeza fabrikatzaile aberats bat omen zuen, hau hildakoan handik alde egin eta hona etorria. Beste batzuk, Hitlerren garaian Donostiara etorritako familia judutar aberats bateko alaba zela. Ez nien, egia esan, jendearen esamesei kasu handiegirik egiten. Zer axola zitzaidan bada niri! Berarekin egotea eta hitz egitea baino ez zitzaidan inporta.

Askotan etortzen zen obraren gorabeherak ikustera eta han ikusiko zenuen negu hotz ilunean, plano eskuetan zuela, enkargatuarekin hitz egiten. Bera nora joan, ni atzetik joaten nintzaion arratoi txakur bat bezain fidel.

Udaberriaren etorrerarekin batera, lorez eta hostoz jantzi ziren etxe inguru hartako arbolak. Buelta guziko pareta lehor batek inguratzen zituen eta

pirriladun ate korrederak zaindu. Azken ukituak baino ez zituen falta etxeak pintura lana bukatu eta gero.

Despedida modura, erramu bazkaria ezin egin izan zutenez, etxean aritu ziren langile guztiei bazkaria ordaindu zien etxeoandreak herriko tabernarik onenean.

Udaberri hartatik hona euri asko egin badu ere, badira hala ere bi gauza, nire zaharrear, oroitzapenen kutxan, altxor preziatu bateko bi bitxi bailiren, oraindik ere bizirik dirautenak: praka luzeak eta eskuetan dudan argazkia.

Beti borroka batean ibili ohi nintzen ama zenarekin galtza luzeak urte osoan eramaten utz ziezadan. Negu partean hotza eta eguraldiaren gorabeherak zirela eta, nire adineko mutil koskor guztiak erabiltzen genituen. Arazoa udaberrian izaten zen, praka luzeak armairurako bidea hartzen zutenean. Baina Apirila hartatik aurrera desberdina izan zen. Etxearen inaugurazioa bertan zegoela eta, Elsak, emandako laguntzagatik, bereak bezalako galtza bakeroak erregalatu zizkidan. Honen aurrean ez zidaten inolako behaztoparik jarri etxeoak. *Señorita Elsak oparitutako galtzak nola ez bada jantzi!* Begirune handia zion amak Elsari. Inoiz edo behin egona zen gurean obra garai haietan eta amistade franko zeukaten ordurako.

Arratsaldeko zortzietan zen ordua. Mugimendu handia zegoen etxe hartan. Sartu bezain agudo etorri zitzaigun Elsa agurtzera. Aita eta ama nituen nirekin eta beti bezain irribarretsu eta argi agurtu gintuen.

—Hara gure galai gaztea! —esan zuen nire frakei begira—. Ez daukate buruhauste txarra auzoko neskek!

Laurok saloi handi batera pasa ginen. Jendea han-hemenka zegoen talde txikietan eta burun-buruko mahai luze batek harturik zeukan erdia, bertan ogitarteko mota ezberdin, hotz nahiz beroak, zeudelarik. Bi besaulki zeuden alde banatan eta aulkiak nonahi barreiatuak. Guztion gaineratik lanpara erraldoi bi, kristalera haietan aiduru zegoen gauaren iluntasuna errenditzeko.

Aita eta ama mahai inguru hartan utzirik, gauzatxo bat erakutsi nahi zidala eta, kanpoaldera eraman ninduen. Zelai aldera ematen zuen atetik irtenda, atea eta kanpoko eskailera artean, inoiz aipatu izan zidan piszina ttiki antzeko ur putzu bat zegoen. Bertan koloretako arrain mordoa zegoen urazpiko bonbilla pare baten argitan. Artean ezkailu, amuarrain-sume eta aingira ziztrin batzuk baino ikusi ez zituenarentzat, benetako ustekabea izan zen pintatutako ezkailu haiek ikustea.

—Kontuz! Kazuelarako igual eramango dizkizu eta!— entzun nuen nire gibelean.

—Ez kasurik egin Martin —esan zidan Elsak—, erokerietan baino ez da ari. Rafael da, lagun bat.

Luze eta beltzarana zen, dotore antzeko traje gris batekin jantzia. Eskuetan argazki kamara zeraman.

—Beno, beno. Hau da bada zure enkargatu ttikia —esan zuen berriro desairoso antzera—. Momentu egokian etorri naiz erretratua ateratzeko. Etorri barrualderago, argitara.

Sarrerako ate ondoan jarri ginen bere baiezkorearen zain. Ez zen zaharra. Aurpegi eta gorputzez gizaseme egokia, *kaballeroa* litzateke agian hitzik egokiena, inoiz amari holakoetan entzuten nion bezala.

—Pareja polita egiten duzue —jarraitu zuen zurikerietan.

Elsaren besoak lotzen ninduen sorbaldatik. Lehenengo aldia zen berarengandik hain hurbil nengoela eta perfume usaina adi nezakeen halako zirrara epel bat sorraraziz. Hamalau urte haietan ez nuen minutu hartan sentitu nuena sentitu. Gorputz osoa txingurriturik neukan lo gozoan bezala. Berrogeita hamar urte geroago argazkia eskuetan dudalarik, oraindik ere sentipenaren kondotsen bat badagoela esatea gezurrezko ilusioa badirudi era, nire baitako kondots horri maitasunezko ke fin mehe bat dario.

Gauak bizkarrean dakar eguna eta egunak gaua. Eta horrela gau eta egun franko pasa ziren inolako mudantzarik gabe. Izan zen aldaketa bakarra bizilagunena izan zen. Inaugurazio eguna pasa eta hilabete batera edo, Rafael etorri zen berarekin bizitzera. Argazkilari lanetan ziharduen eta erakusketaren bat edo beste re eginak omen zituen. Tarteka erakusten zizkidan Elsak argazki miresgarri haiek. Emozioz beterik azaltzen zizkidan niretzat kasik baliorik ere ez zuten argazki arraro haiek. Nik, hala ere, kontra ez egitearren, tarteka, buruarekin baieztapenaren imintzioa egiten nion. Zer egin nezakeen bada? Eskolan egiten nituen eskulanek, argazkien aldean, hutsaren hurrenak ziren. Konpromisozko *polita da oso* baino ez zidan esaten. Nire ahalegin guztiak ezerezean gelditzen ziren.

Bera eta gure familiaren arteko harremanak oso onak ziren. Gure amak asko estimatzen zuen. Askotan izaten genuen etxean eta, tarteka-tarteka, hainbeste gustatzen zitzaigun sagar tarta ekartzen zigun. Esku berezia zuela postretarako esaten zuen amak.

Elsaren urtebetetzea heldu zenean, etxaurreko arrosaditik sorta on bat bildu ondoren, bere etxera bidali ninduen amak. Ni, alde batetik, poztu egin nintzen, ikusia bainean pelikuletan nola galaiek loreak oparitzen zizkieten beren neskei. Baina, bestetik, inork ikusita ere, auzoko beste mutilen aurrean lotsagarri gelditzeko beldurra neukan. Horrela, sorta bizkarraldean gordeta nuela, han joan nintzen ilunabar aldera ondoko etxera. Atea jo orduko gutxien espero nuena agertu zitzaidan bata urdinez jantzita, buruko ileak lehortuz.

—Hauek... Elsarentzat ekarri ditut —esan nuen hitz-totelka.

Rafaelek, barreari ezin eutsiz, barrualdera oihu egin zuen:

—Elsa, etorri! Zure Humphey Bogart ate ondoan daukazu.

Rafaelen algara haien oihartzuna ezin jasanez, arrosa sorta eskailerapeko jardinerara bota eta ihes egiteko zorian egon nintzen, eskuetan neramatzan arrosa haiek bezain gorri.

—Hau da hau sorpresa! Oso politikak dira, mila esker! —esan zidan masaileko musuarekin batera—. Gonbidatuko nizuke, baina, astirik gabe nabil, afaltzera baikoaz Rafael eta biok. Eskerrik asko berriro ere Martin.

—Aio Humphey! —entzun nuen barrualdetik.

Bazuen batz jantzitako subjektu hark beste guztiengandik ezberdintzen zuen zerbait, aurpegi leun bateko orbaina bezain salagarria zena. Ur nahasietako zurrunbiloak legez, guztia bereganatzen zuen eta irentsi. Zurrunbilo moduko horretan zegoen, itsu-itsuan, Elsa ere bere inguruan bueltaka.

Hasierako garai ez-titsa eta urdin haiek mikaztuz joan ziren pixkanaka-pixkanaka. Horrela, eskolatik etxera berandu nentorren ilunabar batean, guzti hori frogatzeko aukera izan nuen liskar eta sesio hotsak bidetik entzun

nituenean. Burdinazko ate handiaren zirrikituak ematen zidan betari probetxua atereaz, etxe gaineko intxaur arbola atzean jarri nintzen zelatan. Gau zerratua zegoen eta kristal haletatik ihesi zihoan argitasuna baino ezin nezakeen ikusi. Elsaren negarrak hartu zion aurrea isiltasunari.

Haserrea eta liskarrak lagun min modura hartu zituen. Horrela, ez zen egunik pasako etxe inguru hartan oihu eta negar mintzoak entzun gabe. Afaltzen ari ginen batean sudurretatik odola zeriola agertu zitzaigun. Apur bat beldurtu ere egin ginen bisaia hura atearen zirrikitutik, *sar al naiteke?* doi-doi esanez agertu zitzaigunean. Amak, bere artegatasunean, amultsuki garbitu zizkion sudur-ezpainak eta zapi garbi bat eskaini zion begi ondoko errekasto pare handi haiek xukatzeke.

—Ezin dut horrela jarraitu! —, esan zuen behin eta berriz negar-zotinka.

Mahaikook platerako mokadua ahoratuz, bere horretan jarraitu genuen. Ama bakarrik zegoen jaikita, Elsak gure etxera egin ohi zituen bisitetan hartzen zuen tea prestatzen. Bitartean, bera, isil-isilik zegoen lurrera betira, pentsakor, eta horrela egon zen ama katiluarekin aurrean jarri zitzaion arte.

—Har ezazu Elsa. Barrenak berotuko dizkizu— esan zion amak koilaratxoarekin azukrea nahastuz.

—Eskerrik asko! — ihardetsi zion Elsak barre-murriz imintzinoa eginez.

Katilukadaren ondoren beste aldarte modu bat ikusten zitzaion, teak barrualdean itota zeuzkan erraiak arnasberitu izan balizko bezala.

Denborale txarraren menpean egon den orok daki zenbat irrikatzen den barealdia. Elsak ere, bere horretan ikusita, bere barealditxoan zegoela zirudien. Bere begiek beste begiratu bat zuten orain eta elkarrizketarako animoa ere ikusten zitzaion.

—Sentitzen dut sortutako nahastea. Afaria galarazi dizuet.

—Ez dago ezer barkatzekorik. Guk ere nahiko genuke beharrean tokatuta norbaiten laguntza. Gainera, zertarako gaude ba auzokoak?— esan zion amak garrantzia kendu nahian.

—Bai, horrela da baina, espero dut berriro modu honetan bisitarik ez egitea. Hala ere, zurruta eginda etorri, ondokoa jo eta berriro zurrutara jotzen duenarengandik, zer espero nezake?

—Beno, beno. Pasak zaio eta hor etorriko zaizu bihar otzan-otzan eginda adiskidetzera.

—Ez dakit... — une batez hitzik gabe eta pentsakor geratu zen—. Beno, banihoa. Gau ona pasa!

—Baita zuk ere! Nahi baduzu Martinek lagunduko zaitu etxeraino— erantzun zion amak kortesiazko eskaintza eginez.

—Ondo dago. Goazen Martin!

Beste bi anai arreba banituen ere, neu nintzen Elsarekin harreman gehiena zuena eta, amak hori, ondotxo zekien. Emakume haren aldarteak une hartan tristatzen baninduen ere, laguntzeko zoria izateak tristura guztiak uxatzen zituen.

Pentsamendutan murgildurik egin genituen lehenengo pausoak. Berak zertan pentsatu bazeukala uste dut eta, nik berriz, ez nekien nola hasi

elkarrizketa. Azkenean, nolabait hasi behar nuela eta, behingoz bederen, aurrea hartu nion.

—Gogor kolpatu al zaitu? —galdetu nion lurrera begira.

—Ez da gogor edo ahul kolpatzea, kolpatzea bera baino. Lehen inoiz haserrealdiren batean sorbalda bietatik helduaz astindu izan nau; baina ez nuen uste hurrengo pausoa ematera ausartuko zenik.

Bizitza, askotan, joko-kartaz egindako dorre bat da. Inolako zimendurik gabe hutsaren gainean dago edozein haize korronteren menpean. Erraz suntsi daiteke eta erraustu. Elsa ere dorre horretako maizter zen.

—Rafael ezagutu nuenean —hasi zitzaidan—, ordura arte bizitzak utzi zizkidan zoko ilun guztiak estaltzeko gai izango nintzela pentsatzen nuen, gabezia guztiak ase. Denbora batez, nire bizitzak izandako aldaketa eta udaberriarekin, maitasunaren zuhaitza ere hostatu eta loratu zait. Baina horretan gelditu da dena. Fruituak eman beharrean berriro ihartu eta erraustu da. Maitasunaren errautsak daramatzat soinean.

Dagoeneko ondoko etxea gure alkantzoan zegoen. Izar zegoen gau hartan eta ilargiaren argitasunak itzal bi marrazten zituen burdinazko atean. Beste egoera batean egoteko moduko gaua zela otutzen zait, freskoa baina ona. Nik uste baino lasaituago zirudien edo horrela agertzen zen bederen gazta argitsupean.

—München, nire jaioterria, izan zen nire lehenengo infernua. Hamalau urte nituela hil zitzaizkidan gurasoak eta umezurtz geratu hamazortzi urteko ahizparekin. Aita zerbezagilea zen aitona bezalaxe eta han ziharduen amarekin batera, gau eta egun, mando-lan batean. Gerrak guztia desegin zuen eta oso egoera latza zen gerra ostekoa. Zerbezagileen artean inbidia eta espa handia zegoen. Eraman ezina izaten zen bestearen negozioaren loratzerik. Honela, istripuz edo norbaitek emanda, zerbezategiak su hartu zuen eta nire gurasoak, lau langileekin batera, bertan kiskali ziren.

Bigarren infernua, Münchenetik atera eta Donostiako izeba-osaben etxera etorri zirenean hasi omen zen. Ilobak etxean hartzearen truke, bere aitaren arrebak, zerbezategiko irabazi apurrak xahutu zituen. Ahizpa, osabaren lagun bat zela medio, lanean hasi zen arropa denda batean.

—Berak etxetik kanpo egiten zuen lan. Gauean bakarrik agertzen zen, lotara. Ni, ordea, etxe hartako neskame bihurtu ninduten, beraien esklabo. Igandea baino ez nuen izaten neuretzat. Lanaren ordaina esker txarra izaten zen ia beti izebaren aldetik. Osabak zurrutarekin nahikoa zuen.

Gau ilunaren aho eskerga bezain zabal zegoen nirea. Kontaketaren hariak Elsaren hamalau urtetara eramane ninduten. Horrela, zerbeza botiletan agertzen zen neskaxa haren antzeko bat irudikatzen nuen: ile horia bi txirikordaz josia, aurpegi zuri pekaduna... Nahiz eta nire adinarentzat egokiagoa izan, nire aurrean nuen Elsa laketago nuen, bere ahots malenkoniatsuen dardarizoak sumatuz, begietatik ihesi zihozkion tristuraren errainuen erdian.

—Zurrutarekin *nahikoa* esan dut, baina, horrelakoetan nire ipurmasailei heltzen zien atximurka egiteko. Etxeko pasabidearen estutasunari probetxu ona ateratzen zion, izebaren ezkutuan, nire bularretatik eskuak pasatzeko ezkerreko begiarekin konplizitate keinu erdeinagarri bat eginez. Hori mozkorra etortzen zen guztietan izaten zen, ia egunero.

Egoera ezin jasanik, ordurako ezkontuta zegoen ahizparen etxera joan zen bizitzera. Gau-eskola hasitako ikasketak bukatu zituen eta bere koinatuak bilatu zion bulegari lana. Berak lan egiten zuen enpresa Alemaniako beste batzuekin salerosketan hasi berria zen eta itzultzaile-idazkari lanetan jardungo zuen norbait behar zuten. Horrela sartu zen Elsa lanean.

—Bulegoan neskalgun berriak egin nituen eta haiekin irteten nintzen larunbat-igandeetan. Larunbat horietako batean ezagutu nuen nire hirugarrengo infernua bilakatuko zena, Rafael. Lagun batek, Sarak, eman zigun erakusketaren berri. Bera nahiko sartuta zegoen argazki mundu horretan eta ezagun batek lehen erakusketa egiten zuela aipatu zigun. Neguko eguraldi euritsu bat zen eta, egia esan, kalean baino hobeto geunden areto epel batean. Harantz hurbildu ginenean ez zegoen inor aretoan. Erakusketaren berri ematen zuten liburuttoen mahaiaren barrualdean zegoen eserita. Sara beragana hurbildu eta aurkeztu gintuen. Oso itxura onekoa zen eta ikusi orduko gustatu zitzaidan. Gero, argazkiak erakutsi ahala, taldea bakandu egin zen eta atzean utzi gintuzten biok.

Handik aurrekoa ez zuen azaldu beharrik. Argazkigintzak lotu zituen eta argazkigintzak hondoratu Rafaelen frakasoan medio.

Gauak eguneranzko bidea hartua zuen jada eta joan beharra zeukan. Berak ere nekaturik zegoela esanez, barruranzko bidea hartu zuen eskuarekin agurtuz. Negu hurbila ustekabean heldua zitzaigun beltz bilakatua zen jada Elsarentzat.